



**Alegiako**  
Udala

**ALEGIAKO FESTAK 2020**  
**BALKOI DOTOREENAREN LEHIAKETA**  
**OINARRIAK**

1. Balkoi dotoreenaren lehiaketa antolatu du Alegiako Festa batzordeak. Nahiz eta festak bere ohiko formatuan bertan behera geratu, egun horietan herriko kaleetan jai giroa pizteko helburuarekin antolatu da.  
**Lehiaketaren gaia: Alegiako festak 2020.**
2. Parte hartzeko ez da izenik eman behar.
3. Epaimahaiko kideak kaleetan ibiliko dira balkoiak ikusten uztailaren 13an. Epaimahaia Festa batzordeko kideek osatuko dute.
4. Honako puntuak hartuko dituzte kontuan:
  - a) Kolorea
  - b) Estetika
  - c) Originaltasuna
5. Epaimahaiaren erabakia behin betikoa izango da.
6. Irabazlearen berri uztailaren 16an emango da Udaleko webgunearen eta sare sozialen bidez.
7. Sariak:
  1. saria: 2 lagunentzako afari bat.
  2. saria: 2 lagunentzako afari bat.
8. Saria jasotzeko epaimahaia irabazleekin harremanetan jarriko da.